# Erabiltzailearen eskuliburua

## Etxebizitzen, Eskaintzen eta Erreserben Katalogoa

**Data: 2015-12-29**

**Erreferentzia: 15.01 bertsioa**

EJIE SA

Mediterraneoaren hiribidea 14

01010 Vitoria-Gasteiz

Posta-kutxatila / Apartado: 809

01080 Vitoria-Gasteiz

Tel.: 945 01 73 00*

Faxa: 945 01 73 01

www.ejie.es

EJIE SA da dokumentu honen jabea eta bertako edukia konfidentziala da. Ezin da dokumentu honen kopiarik egin, ez dokumentu osoarena ez zati batena, eta EJIE SA enpresak baimena idatziz eman beharko du, aldez aurretik, dokumentu hau besteei erakusteko eta dokumentua ematea eragin duten helburuak ez diren bestelako xedeetarako erabiltzeko. Kontratu baten barruan emanez gero, kontratuan berariaz baimendutako erabilera soilik izango du. EJIE SAk ez du erantzukizunik akatsak edo hutsuneak baleude dokumentuaren edizioan.

# Dokumentazioaren kontrola

| | |
|---|---|
| | **Bertsioen historia** |

| Bertsioa: | Data: | Aldaketen laburpena: |
|---|---|---|
| 1 | 2014-04-15 | Dokumentua idaztea |
| 15.01 | 2015-12-29 | Eskuliburua eguneratzea, UDAko garapenaren arabera |
| | | |

## Azken bertsiotik hona egindako aldaketak

Lehenengo bertsioa.

## Erregistroa

| | |
|---|---|
| Egilea: Sonia Prieto (Ibermática) | |
| Sinadura: | Data: 2015-12-29 |
| Nork onartu zuen: Koro Gorritxo (GANS / EJIE) | |
| Sinadura: | Data: |
| Banaketa: | |

# Edukia

| | Kapitulua | Orrialdea |
|---|---|---|
| | TOC | |

# 1 Sarrera

Eskuliburu honen helburua da erabiltzaileei BPE Erregistroaren (aurreratzean, BPEE) kudeaketa-funtzionalitateen berri ematea, M62 – Etxelaguntza aplikazioaren modulu gisa. Aplikazio hori Java plataforma batera (UDA) lekualdatu da, Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarteak (EJIE) Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Etxebizitza Sailburuordetzaren aplikazioetarako zehaztutako bilakaeraren baitan.

Aplikazio berriak (M62FB) honako behar espezifiko hauei erantzuna ematea ahalbidetuko du:

- Eusko Jaurlaritzaren babes publikoko etxebizitzak kontsultatzea.
- Eusko Jaurlaritzaren babes publikoko eranskinak eta lokalak kontsultatzea.
- BPEEn etxebizitzak gehitzea, aldatzea edo kentzea, banaka edo multzoka.
- BPEEn eranskinak edo lokalak gehitzea, aldatzea edo kentzea, banaka edo multzoka.
- Zuzkidura-bizitokiak gehitzea, aldatzea edo kentzea.
- Bigarren transmisioetarako etxebizitzen gehieneko prezioen ziurtagiriak igortzea.
- Administrazioak erabiltzeko etxebizitzen erreserba kudeatzea (Etxebizitza Saila, ordezkaritzak, aldundiak, udalak...).

Hala, M62 – Etxelaguntza aplikazioan eskuragarri zegoen BPE Erregistroaren moduluari bere horretan eutsiko zaio, baina azalera eskubideagatik emandako lurzoruen salmenta kudeatzeko besterik ez. Gainerako zeregin guztiak M62FB aplikazioaren bidez kudeatuko dira hemendik aurrera.

## 2. Sistemarako sarbidea

M62FBra sartzeko, lehenengo autentifikazioa egin beharko da XLNets aplikazioen atarian. Identifikatu ondoren, aplikaziora sartuko gara, eta honako menu nagusi hau agertuko zaigu:




Ondoren, egin daitezkeen eragiketa desberdinak ikusiko ditugu. Bereizita egongo dira: batetik, etxebizitzak eta beste elementu batzuk erregistratzeko eragiketa espezifikoak; eta, bestetik, etxebizitzak erreserbatzeko prozesuarekin lotura dutenak.

## 3. Nola mantendu etxebizitzen datuak




“Etxebizitzak-Hautaketa” ataletik, etxebizitzak mantentzeko atalera sartuko gara; bertan, Eusko Jaurlaritzaren etxebizitzak gehitu, aldatu, kontsultatu edo kendu ahal izango ditugu. Etxebizitzak eskuz sartu ahal izango dira, jarraian ikusiko dugun moduan, edo baita multzoka ere, aurrez diseinatutako Excel orri batzuen bidez. Horiei esker, etxebizitzak automatikoki karga daitezke.

Kontuan izan behar da, gainera, hasiera batean, M62 – Etxelaguntza aplikaziotik kudeatutako sustapenetako etxebizitzak BPEEn kargatzen direla, horien geroagoko mantentze- eta kudeaketa-lanetarako.

### 3.1. Nola bilatu etxebizitza bat

Sistemak bilaketa-iragazki bat aplikatzeko aukera ematen du, Erregistroan dauden etxebizitzak bilatzeko eta, ondoren, horiekin lan egiteko:




### 3.2. Nola gehitu/editatu etxebizitza bat

Lehendik Erregistroan dagoen etxebizitza bat gehitzeko edo editatzeko, aplikazioaren “Etxebizitzak > Hautaketa” menu nagusitik etxebizitzaren datuak tratatzeko pantailara sartuko gara. Horretarako, etxebizitza berri bat sartu nahi badugu, “gehitu” botoia sakatuko dugu, eta, lehendik erregistratuta dagoen etxebizitza baten informazioa aldatu nahi badugu, berriz, “editatu”. Bi kasuetan, pantaila hau agertuko da:




Atal desberdinak irekiko ditugu, kasu bakoitzean erregistratu beharreko datuak aztertzeko:

## 1. Etxebizitzaren datuak




- **Etxebizitzaren zk.**: datu hori automatikoki ematen du sistemak, etxebizitzaren erregistratutako datuak gordetzen diren unean. Identifikatzaile bakarra izango dute, eta hori bera erabiliko da datu hori eskatzen duten etxebizitzen aplikazio guztietan.
- **Etxebizitzaren kokapenari buruzko datuak**: etxebizitzaren kokaleku fisikoari buruzko datuak: probintzia, udalerria, herria, kalea, PK, blokea, zenbakia, BIS, eskailera, pisua, aldea, atea.
- **Etxebizitzari buruzko datuak**: etxebizitzaren ezaugarri zehatzak barne hartzen ditu, geroago horren inguruko eragiketak egiteko balio behar dutenak.
- **Erregistroko datuak**: erregistroko inskripzioaren informazio espezifikoa barne hartzen du: erregistroa, zenbakia, liburukia, liburua, folioa, finka, inskripzioa.
- **Katastro-informazioa**: katastroko datuak, OHZ eta katastroko erreferentzia.

## 2. Etxebizitzari lotutako eranskinen datuak

Etxebizitzari lotutako elementu fisikoak dira eranskinak; esaterako, garajeak eta trastelekuak.




BPEEko etxebizitzek eranskinak izan ditzakete (garajeak edo trastelekuak), etxebizitzei lotuak edo libreak.

Garaje edo trasteleku lotuak badira, informazioa sustapenean emango da, eta BPEEn kontsultatu besterik ezin izango da egin. Horiek aldatzeko menu nagusian dagokion atalera jo beharko dugu; aurrerago ikusiko dugu.

Etxebizitzari elkartutako eranskin libreen kasuan, sistemak horiek etxebizitzatik bereizteko eta beste bat esleitzeko aukera ematen du, baina bigarren eranskinak ere librea izan beharko du:




Eranskin librea etxebizitzatik bereiztea, “BPE Erreg. Identif.” eremuaren ondoan dagoen botoia erabiliko dugu; hala, datua ezabatu egingo da, eta eremua libre geratuko da, beste eranskin bat lotzeko, identifikazio-zenbakia erabiliz edo laguntza-botoiaz  baliatuz. Edonola ere, erantsiko den eranskin berriak librea izan beharko du.

# 3. Etxebizitzaren beste datu batzuk




Etxebizitzari buruzko informazioan beste datu batzuk ere ikus daitezke:

- Zehapen-espedienteen datuak: etxebizitzari eragiten dion zehapen-espedienteren bati hasiera emanez gero, horren erreferentzia ikusiko da; orain horren izapideak N55 – BDD aplikaziotik egiten dira.
- Etxebizitza sailkatzeko datuak. Datu hauek langile teknikoek sartuko dituzte zuzenean atal honetan.

## 3.3. Nola gehitu/mantendu etxebizitza bati lotutako kontratuen informazioa




BPEEk egiten diren etxebizitzaren epe luzerako kontratuen mantentze-lanak egingo ditu, kontratu horiek erostekoak nahiz alokatzekoak izan. Eragiketa horiek “Etxebizitza>Hautaketa” menu nagusitik abiatuta egingo dira; bertatik, etxebizitza zehatzetik goiko irudian agertzen den atalera sartuko gara.

Kontratu bati buruzko informazioa gehitzeko/editatzeko, izen bereko botoia sakatuko dugu, eta datuen pantailara sartuko gara:

Erosteko kontratua




Alokatzeko kontratua



## 3.4. Nola gehitu/kontsultatu etxebizitzari lotutako dokumentazioa

Sistemak etxebizitzarekin eta bere kontratuekin lotutako dokumentuak gordetzea/kontsultatzea ahalbidetzen du, edozein formatutan (.pdf, .docx...).

Alde batetik, 

botoiko “Etxebizitza” fitxatik, erantsitako dokumentazioari alta eman edo hori kontsulta daiteke:




Bestetik, kontratuetatik, horiek gorde ondoren,  botoia erabilgarri jartzen da, eta, horren bidez, dokumentazioa kontsultatu edo horri alta eman dakioke. Horretarako, erregistratutako kontratua editatu eta, datuen-pantailatik, botoia sakatu behar dugu:





## 3.5. Nola eguneratu etxebizitza multzo baten datuak aldi berean




M62FBk eguneratze-/alta-sistema masibo bat du, etxebizitzen datuen mantentze-lana arintze aldera. Horretarako, irudian ikus dezakegun menuko ataletik informazioa tratatzeko pantailara sartuko gara eta, hasteko, eguneratu nahi ditugun etxebizitzak edo altan eman nahi ditugun datuen (kontratuak) etxebizitzak aukeratuko ditugu, aldi berean etxebizitza ugari aukeratuz. Horretarako, informazioa iragazteko irizpideak erabiliko ditugu:




Eta "bilatu" sakatuko dugu. Sistemak irizpide horiek betetzen dituzten etxebizitzen zerrenda erakutsiko digu, eta, orduan, tratatu nahi ditugunak markatu ahal izango ditugu:




Pantailan ikusten diren guztiak markatu daitezke, bilaketaren emaitzak eman dituenak (etxebizitzen datuak barne hartzen dituzten hainbat orrialde daude) edo une horretan tratatu nahi ditugunak soilik. Azken kasu horretan, eskuz markatuko ditugu eguneratu nahi ditugunak.

Horrez gain, zerrendaren lehen orrialdean ikusten diren etxebizitzak baino gehiago badaude, sistemak markatu gabe geratutako etxebizitzen berri emango digu, markatutakoak baino etxebizitza gehiago markatu nahi izango bagenitu ere:




Eguneratu nahi ditugun etxebizitzak markatu ondoren, “Alta masiboa” eta “Eguneratze masiboa” aukera erabilgarri egongo dira, eta masiboki egunera daitezkeen datuen zerrenda barne hartzen duen menu bat agertuko zaigu. Horietako edozein aukeratzean, dagokion leihoa irekiko da, datuak erregistratu/aldatu ahal izateko; hala, aldaketak gordetzean, datu horiek aldi berean eguneratuko dira aukeratutako etxebizitza guztietan:




Mantenimiento de viviendas
Act. Masiva
Alta masiva
Exportar
Contratos Compra
Contratos Alquiler
Municipio = Artziniega

## 3.6. Nola sartu datuak Excel-etik




Funtzionalitate honek BPEEn etxebizitza, eranskin eta kontratu lotuak kargatzea ahalbidetzen du, aurrez ezarritako diseinu bat duen Excel orri batetik abiatuta.

Horretarako, irudiko leihoa agertuko zaigu; bertan, sustapenaren datuak, kontratuaren sarrera-data eta kargatu beharreko fitxategi mota zehaztu beharko ditugu:

- Udalen BPEen jakinarazpena: fitxategi honetan etxebizitzak kargatuko dira.
- Behin-behineko/Behin betiko sailkapen-eskaeren kontratuak: salerosketa- edo alokairu-kontratuak kargatzen dira, dagokionaren arabera.
- Zuzkidura-bizitokien kontratuak: salerosketa- edo alokairu-kontratuak kargatzen dira, dagokionaren arabera.

Jarraian, informazioa barne hartzen duen fitxategia erantsiko dugu (xml formatuan). Horretarako, erabiltzaileek Excel txantiloi batzuk dituzte, txosten horietako bakoitza osatzeko, kasu bakoitzean dagozkion datuekin. Informazioa osatu ondoren, “xml-ra esportatu” sakatu behar da, eta fitxategia formatu horretan eskuratuko dugu. Hori erantsiko dugu pantailan, datuak sisteman kargatu ahal izateko:




1.

“XML esportatu” sakatzean, sistemak fitxategiarentzako izen bat eskatuko digu, eta leiho honetan jarriko dugu:




Hala, XML fitxategia sortuta geratuko da, eta hori erantsi beharko da eragiketa osatzeko.

“Bidali” sakatzean, sistemak mezu bat erakutsiko digu; horrek BPE erroldan adierazi den sustapenari dagokionez egingo den datuak kargatzeko eragiketaren informazioa barne hartuko du. Karga-prozesua amaituko da, baldin eta kargatu beharreko informazioan akatsik ez badago; bestela, antzemandako akatsen berri ematen duen taula bat agertuko da, eta erabiltzaileak datuak begiratu eta zuzendu egin beharko ditu, karga-prozesua osatu ahal izateko.

# 4. Nola mantendu lotutako elementuen datuak




Menuko “Lotutako Elementuak” ataletik, garajeak eta trastelekuak mantendu eta horiei alta eman dakieke, baita horiei buruzko informazioa modu masiboan eguneratu ere.

## 4.1. Nola bilatu elementu bat (garajea, trastelekua)

Lehendik BPEEn dagoen elementu batekin lan egin nahi badugu, hori aurkezteko zenbait iragazpen-irizpide ditugu erabilgarri:




“Bilatu” sakatzean, sistemak bilaketa-irizpideekin bat datozen elementuen zerrenda bat erakutsiko digu.

## 4.2. Nola eman alta elementu bati (garajea, trastelekua)

Elementu berri bati alta emateko “gehitu” aukera erabiliko dugu. Sistemak elementu libreen alta bakarrik onartzen du; izan ere, etxebizitzari lotutako elementuak BPEEra sartzen dira M62 – Etxelaguntza aplikazioan erregistratutako sustapenetik, eta, beraz, horiek editatu besterik ezin dira egin:




Ikus dezakegun moduan, sistemak berak markatzen du erregistratzen ari garen elementua “librea” dela. Lotutako elementuei ezin zaie alta eman.

Informazioa atal hauetan banatuta egongo da:

- Elementuaren datu orokorrak
- Helbidea
- Jabetza-erregistroa
- Alokabiderekin lotutako datuak
- Lotutako etxebizitzari buruzko datuak

Eranskin libreen kasuan, sistemak “Etxebizitzen Alokairuen Kontratuak” frame-a erakutsiko digu; bertan, dagokion garajeari edo trastelekuari lotutako kontratuak gehitu, editatu, kontsultatu... daitezke, baldin eta etxebizitza bati lotuta badaude.





Beraz, eranskin libre bati lotutako alokairu-kontratu bat gehitu nahi badugu, azken horrek etxebizitzari lotuta egon beharko du aldez aurretik; hala, eranskina sisteman sartzean, alokairu-kontratuari dagokion frame-a ikusiko da.

Horrez gain, erlazionatutako dokumentazioa erants/kontsulta daiteke, eskuliburu honetako etxebizitzei buruzko 3. atalean zehaztutakoari jarraituz.

## 4.3. Nola eguneratu elementuen datu ugari aldi berean

Jarraitu beharreko prozedura dokumentu honen 3.5 atalean etxebizitzentzat aipatutakoaren antzekoa da.

# 5. Nola mantendu zuzkidura-bizitokien datuak




## 5.1. Nola bilatu zuzkidura-bizitoki bat

Etxebizitzentzat eta erantsitako elementuentzat ikusi dugun moduan, zuzkidura-bizitokietan ere bilaketa iragazteko aukera izango dugu, BPEEn sartuta daudenak aurkitzeko:




“Bilatu” sakatzean, sistemak bilaketa-irizpideekin bat datozen zuzkidura-etxebizitzen zerrenda bat erakutsiko digu:




## 5.2. Nola gehitu/editatu zuzkidura-bizitoki bat

Lehendik Erregistroan dagoen etxebizitza bat gehitzeko edo editatzeko, aplikazioaren “Zuzkidura-bizitokiak > Hautaketa” menu nagusitik etxebizitzaren datuak tratatzeko pantailara sartuko gara. Horretarako, zuzkidura-bizitoki berri bat sartu nahi badugu, “gehitu” botoia sakatuko dugu, eta, lehendik erregistratuta dagoen bizitoki baten informazioa aldatu nahi badugu, berriz, “editatu”. Bi kasuetan, pantaila hau agertuko da:




Atal desberdinak irekiko ditugu, kasu bakoitzean erregistratu beharreko datuak aztertzeko:

**1. Zuzkidura-bizitokiaren datuak:**

Atal honetan bizitokiaren datu orokorrak izango ditugu, katastro-informazioa eta kokapena barne.

**2. Lotutako eranskinak:**

Zuzkidura-bizitokiari lotutako garajeari eta/edo trastelekuari buruzko datuak agertuko zaizkigu, kontsulta egiteko. Informazio hori sustapenak ematen du, eta, beraz, BPEEtik kontsultatu besterik ezin da egin.

Ezin dira menu nagusiko “Elementuak” atalean ikusi, bertan aldatzeko.

**3. Alokatzeko kontratuak:**

Atal honetan zuzkidura-bizitokiari dagozkion formalizatutako alokairu-kontratuen informazioari alta eman eta/edo mantendu egiten da. Informazio horrek barne hartzen du lotutako dokumentazioaren eranskina eta kontsulta egiteko aukera; horren tratamendua etxebizitzentzat aipatutakoaren antzekoa da (dokumentu honen 3.4 atala).

**4. Sailkapen-datuak:**

Zuzkidura-bizitokiaren esleipenarekin lotutako datuak dira, eta langile teknikoek emango dute horien berri, dagokion bizitokiari alta ematean eta/edo mantentzean.

# 6. Etxebizitzen katalogoaren kudeaketa

## 6.1. Etxebizitzen katalogoaren deskribapena

Etxebizitzen katalogoa administrazioak erabiltzeko “erreserba” ditzakeen etxebizitzen zerrenda bat da (Etxebizitza Saila, lurralde-ordezkaritzak, aldundiak, udalak eta sozietate publikoak).

Etxebizitza horien erabilera ohikoena da lurralde-ordezkaritzek alokairuan uztea behar bereziengatik etxebizitza eskatzen duten pertsonei (etxe-hustea, etxegabetzea...).

### 6.1.1. Katalogoko etxebizitzen jatorria

Katalogoa osatzen duten etxebizitzek hainbat jatorri izan ditzakete:

- Esleipen-prozesu (zozketa) batetik kanpo geratu diren sustapen bateko etxebizitzak, udal, sozietate publiko edo ordezkaritza batek erreserbatutakoak, berak erabiltzeko.
- Eusko Jaurlaritzaren jabetzakoak diren sustapenetako etxebizitzak (“EE” motako espedientea dutenak). Katalogora automatikoki sartzen dira, BPE Erregistrora sartzen diren unean bertan (behin-behineko kalifikazioa kalkulatu ondoren); “erreserbatu” gisa sartzen dira, alokairuan esleitzear egoten baitira. Erreserba-akordio bat sortzen zaie automatikoki, aurretiko eskaerarik gabe.
- Herritar batek EJri uzten dizkion etxebizitza libreak, BOE baten truke (“VL” motako espedientea). Lehendik zeuden mota honetako etxebizitzei “libre” egoera jarri zaie katalogoan, aztertu eta “erabilgarri” izatera pasa arte. Dena den, etxebizitza hauetako bat BPE Erregistrora sartzen denean (kontratu bat sortzen denean) automatikoki katalogoan sartuko da, “erabilgarri” gisa; izan ere, BOE bat ez bada ere, alokatu edo saldu egin daiteke.

### 6.1.1.1. Etxebizitza bat esleipen-prozesu (zozketa) batetik kanpo uztea

Promozio bateko etxebizitza batzuk esleipen-prozesutik (zozketa) kanpo gera daitezke, honako eskema honetan ikus daitekeen moduan:




- Behin-behineko kalifikazioaren ondoren, erreserba-eskaera bat iristen da Etxelaguntzara (lurralde-ordezkaritzak, aldundiak edo halakoren batek bidalia), eta hori aplikazioan erregistratzen da.
- Erreserba-eskaera etxebizitzen katalogoko datuekin elkartzen da, eta erreserba-akordio bat sortzen da.
- Lurralde-ordezkaritzan etxebizitzen zozketa egin aurretik (zozketa horretan etxebizitza jakin bat esleitzen zaio esleipendun bakoitzari), zozketatik kanpo geratu ziren etxebizitzen (erreserbatuak) informazioa berreskuratzen da; beraz, etxebizitza horiek ez dira zozketatzen.

## 6.1.2. Etxebizitza baten egoerak katalogoan




Katalogoko etxebizitzen egoerak aldatu egiten dira. Hala, etxebizitza bat erabilgarri egoten da erreserbatzeko moduan dagoenean. Etxebizitzaren egoera automatikoki aldatzen da, horren gaineko zenbait jarduketa egiten diren heinean

(eskaintzak, erreserbak, kontratuak). Gainerako egoerak eskuz aldatu behar dira, katalogoko mantentze-leihotik. Hauek dira katalogoko etxebizitza batek izan ditzakeen egoerak:

***Erabilgarri***: hutsik dago (ez du kontraturik indarrean) eta okupatua izateko prest; alegia, bizigarritasun-egoeran eta kausarik ebazteke izan gabe. Erreserbatzeko "erabilgarri" dagoela esan nahi du.

***Ez erabilgarri***: hutsik dago, baina ez ditu betetzen bertan bizitzeko beharrezko baldintzak (esaterako, azken okupatzaileak hondatu egin zuen) edo kausaren bat du ebazteke (esaterako, legez kanpo okupatuta dago). Arazoa konpontzen denean, erabilgarri gisa jarri ahal izango da.

***Librea***: jabeak eman du, BOE baten truke, zenbait urritasun direla eta (adineko pertsona batena da eta ez dauka igogailurik, desgaitasun bat duen norbaitena da eta ez dago egokituta, etab.). "VL" espedienteak dira. Lehendik zeudenei (katalogoa sortu aurretik) egoera hau jarri zaie, berrikus daitezen eta "erabilgarri" egotera igaro daitezen; izan ere, horiek saldu edo aloka daitezke, BOE ez badira ere. Dena den, katalogoan lehendik zeudenez, kontratua erregistratuta dute (kontratua da BPE Erregistroan sartzeko modu bakarra); beraz, "okupatu" gisa agertuko dira.

Egoera hori erabiltzaileak alda dezake, katalogoko mantentze-leihoaren bidez, baldin eta etxebizitza horiek markatu nahi baditu, ezin erreserba daitezen, baina besteengandik bereizita (ez "ez erabilgarri" gisa).

Mota honetako etxebizitza berriak BPE Erregistroan sartzen direnean, "okupatu" gisa alta emango zaie katalogoan, adierazi dugun moduan hori kontratua erregistratzean bakarrik gertatzen baita. BPE Erregistroan zuzenean alta ematea posible izanez gero, zuzenean katalogora sartuko lirateke "erabilgarri" gisa, alokatu edo erosi ahal izango bailirateke, BOE izan gabe ere.

Etxebizitza hauentzako beste aukera bat da BOE gisa kalifikatzea, beren urritasunak konpondu ondoren. Kasu horretan, espedientea aldatu egingo litzateke, "VL"-tik "WE"-ra.

***Eskainita***: etxebizitza "erantzuteke" dagoen edo "onartua" izan den eskaintzaren batean sartu da. Hauek ere erreserba daitezke; izan ere, hori egin behar da eskaintza onartu denean, nahiz eta eskaintza ez den erreserbatu ahal izateko nahitaezko baldintza bat.

***Erreserbatuta***: erreserba-akordioren batean sartu da.

***Okupatuta***: erosteko edo alokatzeko kontraturen bat du indarrean. Erosteko kontratu bat edukitzeak soilik esan nahi du okupatuta dagoela, baldin eta sarbide-erregimena hauetako bat bada: sarrera geroratua, salmenta, norberaren erabilera edo alokairua, erosteko aukerarekin. Gainerako kasuetan, etxebizitza EJren, udal baten edo sozietate publiko baten jabetzakoa da, beraz, ez dago okupatuta.

Etxebizitza bat zein kasutan markatzen den "okupatu" gisa:

- Salerosketa-kontratu bat erregistratzen bada, baldin eta sarbide-erregimena hauetako bat bada: SARBIDE GERORATUA, SALMENTA, NORBERAREN ERABILERA (AUTOSUSTAPENA, KOOPERATIBAK...), SALMENTA edo ALOKAIRUA, EROSTEKO AUKERAREKIN; kasu horietan herritar batek erosiko du etxebizitza. Sarbide-erregimenen artean, baliteke etxebizitza EJk, udal batek edo sozietate publiko batek eskuratua izana, ondoren alokatzeko; kasu horretan, ez dago okupatuta.
- Alokatzeko kontratu bat erregistratzen bada.

Etxebizitza bat libre geratzen denean, "ez erabilgarri" gisa marka daiteke, berriz okupatzeko moduan ez dagoela adierazteko.

## 6.2. Nola gehitu etxebizitzak katalogora

Katalogora zuzenean sar daiteke, BPEE aplikazioko sarreratik:




## 6.2.1. Nola aurkitu lehendik katalogoan dauden etxebizitzak




"*Etxebizitzak gehitu"* aukeratutakoan, honako orrialde hau agertuko da:




Hasiera batean, orrialdean ez da daturik agertuko. Bilaketa iragazteko irizpide batzuk ezarri behar ditugu, BPEEtik nahi ditugun etxebizitzak berreskuratzeko; horiek beheko taulan agertuko dira. Bilaketa-irizpideak ikusi ahal izateko, "iragazi" botoia erabiliko dugu, horiek agerian jartzeko:




Hauek dira bilaketa egiteko erabil daitezkeen irizpideak:

- BPE Erregistroko etxebizitzaren identifikatzailea.
- Espediente-zenbakia; * erabil daiteke zernahitarako karaktere gisa.
- Probintzia.
- Udalerria.
- Sarbide-erregimena: sarbide geroratua, salmenta, alokairua gero erosteko aukerarekin...
- Edukitza-erregimena: jabetza edo azalera-eskubidea.
- Etxebizitza egokitua: bai edo ez.
- Logela kopurua (“-(e)tik/-(e)ra” motako tarte bat jar daiteke).
- Azalera erabilgarria (“-(e)tik/-(e)ra” motako tarte bat dago hemen ere, eta zenbaki osoak jarriz adierazi behar da).

Irizpideak aukeratu ondoren, ***Bilatu*** botoian klik egin behar da, emaitzak ikusteko. Iragazteko irizpideak kentzeko, ***Garbitu*** sakatu behar da, eta zerrenda osoa agertuko da berriro.

Bilaketa-irizpideak ezkutatzeko, Iragazi botoian klik egin behar da. Une horretan aplikatutako irizpideak agertuko dira, itzaleztatutako lerro batean, botoi horren azpian:




| | Provincia | Municipio | Nº Expediente | Nº Vivienda | Id. Vivienda | Régimen | Tenencia | Adaptada | Nº Dormitorios | Superficie Útil |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ☐ | ARABA | VITORIA-GASTEIZ | EB1-0208/98-EP-000 | 1 | 26598 | VENTA | DERECHO DE SUPER | S | 0 | 83,56 |
| ☐ | ARABA | VITORIA-GASTEIZ | EB1-0222/10-WE-000 | 1 | 55663 | VENTA | DERECHO DE SUPER | S | 0 | 70,00 |
| ☐ | ARABA | VITORIA-GASTEIZ | EB1-0331/05-LC-000 | 1 | 80966 | VENTA | DERECHO DE SUPER | S | 2 | 90,00 |
| ☐ | ARABA | VITORIA-GASTEIZ | EB1-0331/05-LC-000 | 2 | 80967 | VENTA | DERECHO DE SUPER | S | 2 | 90,00 |
| ☐ | ARABA | VITORIA-GASTEIZ | EB1-1277/03-LC-000 | 3 | 71487 | VENTA | DERECHO DE SUPER | S | 0 | 70,00 |
| ☐ | ARABA | VITORIA-GASTEIZ | EB1-1278/03-LC-000 | 3 | 71561 | VENTA | DERECHO DE SUPER | S | 0 | 70,00 |
| ☐ | ARABA | VITORIA-GASTEIZ | EB1-0296/10-LC-000 | 5 | 117270 | VENTA | DERECHO DE SUPER | S | 2 | 77,35 |
| ☐ | ARABA | VITORIA-GASTEIZ | EB1-0297/10-LC-000 | 5 | 117398 | VENTA | DERECHO DE SUPER | S | 2 | 79,75 |
| ☐ | ARABA | VITORIA-GASTEIZ | EB1-0414/01-EP-000 | 5 | 29175 | VENTA | DERECHO DE SUPER | S | 0 | 89,27 |
| ☐ | ARABA | VITORIA-GASTEIZ | EB1-1277/03-LC-000 | 15 | 71499 | VENTA | DERECHO DE SUPER | S | 0 | 70,00 |

## 6.2.2. Nola gehitu etxebizitzak katalogora

Atal honetan BPEEn dauden baina oraindik katalogoan agertzen ez diren etxebizitzak sar daitezke katalogora.

Iragazkian aukeratutako baldintzak betetzen dituzten eta oraindik katalogoan ez dauden BPEEko etxebizitzen zerrenda eskuratu ondoren, hautaketa-laukia markatu behar dugu katalogora sartu nahi ditugunetan:




| | Provincia | Municipio | Nº Expediente | Nº Vivienda | Id. Vivienda | Régimen | Tenencia | Adaptada | Nº Dormitorios | Superficie Útil |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ☐ | ARABA | VITORIA-GASTEIZ | EB1-0208/98-EP-000 | 1 | 26598 | VENTA | DERECHO DE SUPER | S | 0 | 83,56 |
| ☐ | ARABA | VITORIA-GASTEIZ | EB1-0222/10-WE-000 | 1 | 55663 | VENTA | DERECHO DE SUPER | S | 0 | 70,00 |
| ☑ | ARABA | VITORIA-GASTEIZ | EB1-0331/05-LC-000 | 1 | 80966 | VENTA | DERECHO DE SUPEI | S | 2 | 90,00 |
| ☑ | ARABA | VITORIA-GASTEIZ | EB1-0331/05-LC-000 | | 80967 | VENTA | DERECHO DE SUPEI | S | 2 | 90,00 |
| ☐ | ARABA | VITORIA-GASTEIZ | EB1-1277/03-LC-000 | | 71487 | VENTA | DERECHO DE SUPER | S | 0 | 70,00 |
| ☐ | ARABA | VITORIA-GASTEIZ | EB1-1278/03-LC-000 | 3 | 71561 | VENTA | DERECHO DE SUPER | S | 0 | 70,00 |
| ☐ | ARABA | VITORIA-GASTEIZ | EB1-0296/10-LC-000 | 5 | 117270 | VENTA | DERECHO DE SUPER | S | 2 | 77,35 |
| ☐ | ARABA | VITORIA-GASTEIZ | EB1-0297/10-LC-000 | 5 | 117398 | VENTA | DERECHO DE SUPER | S | 2 | 79,75 |
| ☐ | ARABA | VITORIA-GASTEIZ | EB1-0414/01-EP-000 | 5 | 29175 | VENTA | DERECHO DE SUPER | S | 0 | 89,27 |
| ☐ | ARABA | VITORIA-GASTEIZ | EB1-1277/03-LC-000 | 15 | 71499 | VENTA | DERECHO DE SUPER | S | 0 | 70,00 |

Markatutako etxebizitzak katalogora sartzeko, “Etxebizitzak sartu” botoia erabiliko dugu. Orduan, leiho bat irekiko da, eta bertan eskatzen diguten informazioa sartu beharko dugu, katalogoan erregistra dadin. Leiho bakarra da aukeratutako etxebizitza guztientzat:




Datuak lehenetsitako balioetan emango dira. Hala, aukeratutako etxebizitzak "erabilgarri" gisa sartuko dira katalogora, eta katalogoan agertzeko hasiera-data une horretakoa izango da. Hasiera batean, nahikoa izango da informazio hori onartzea, ***Gorde*** botoia sakatuz. Abisu-mezu bat agertuko da:




Onartu ondoren, etxebizitzak katalogoan sartuta agertuko dira eta hasierako zerrendatik desagertuko dira.

### 6.2.3. Nola mantendu eta kontsultatu katalogoko etxebizitzak




Orrialde honetan katalogoko etxebizitzak kontsultatu ahal izango ditugu, baita horien mantentze-lanak egin ere.

#### 6.2.3.1. Katalogoko etxebizitzak kontsultatu

Hasiera batean, orrialdea hutsik egongo da. Iragazteko irizpide batzuk ezarri behar ditugu, nahi ditugun etxebizitzak aurkitzeko:

- BPE Erregistroko etxebizitzaren identifikatzailea.
- Espediente-zenbakia; * erabil daiteke zernahitarako karaktere gisa.
- Probintzia.
- Udalerria.
- Sarbide-erregimena: sarbide geroratua, salmenta, alokairua gero erosteko aukerarekin...

- Edukitza-erregimena: jabetza edo azalera-eskubidea.
- Etxebizitza egokitua: bai edo ez.
- Logela kopurua ("-(e)tik/-(e)ra" motako tarte bat jar daiteke).
- Azalera erabilgarria ("-(e)tik/-(e)ra" motako tarte bat dago hemen ere, eta zenbaki osoak jarriz adierazi behar da).



Iragazteko irizpideak aukeratu ondoren, ***Bilatu*** botoia sakatuko dugu. Zehaztutako irizpideak betetzen dituzten katalogoko etxebizitzen zerrenda agertuko da. Irizpideak ezabatzeko, ***Garbitu*** aukeran egin behar da klik, eta zerrenda osoa agertuko da berriro. Bilatzeko iragazkia ezkutatzeko, nahikoa da ***Iragazi*** botoian egin behar da klik.

Etxebizitza bakoitzerako, katalogoan duen egoerari buruzko informazioa agertzen da, baita bere ezaugarriak (azalerak, eranskinak, erregimena, etab.), azken kontratuak eta azken erreserba ere.

### 6.2.3.2. Katalogoko etxebizitzen informazioa editatu

Etxebizitzaren informazioa edita daiteke; horretarako, etxebizitza aukeratu behar da, lerroan klik eginez (itzaleztatuta agertuko da), eta ***Editatu*** botoia sakatu behar da.



Hori egitean, leiho bat agertuko da, katalogoan gordetako etxebizitzaren informazioarekin; informazio hori bertan duen egoerari buruzkoa izango da:




"*Katalogoko egoera*" eremuko goitik beherakoan ikus daitezke etxebizitza erreserbatu bat zer egoeratatik igarotzen den; alabaina, aplikazioak ez du edozein egoera hautatzeko aukera ematen, egoera-aldaketa gehienetarako izapideak egin behar baitira, aplikazioaren bitartez (BPE Erregistroaren modulua). Kasu horietan, sistemak akats-mezu bat erakutsiko digu Gorde botoian klik egitean; bertan, aldaketa zergatik egin ezin den ikusiko dugu.

### 6.2.3.3. Etxebizitzak kendu katalogotik

Aplikazioak katalogotik etxebizitzak kentzeko aukera ematen du. Dena den, etxebizitza horiek BPEEn egoten jarraituko dute.

Horretarako, etxebizitza aukeratu behar da, itzaleztatutako lerroaren gainean klik egitez, eta ***Kendu*** botoia sakatu behar da.




| Provincia | Municipio | Nº Expediente | Nº Vivienda | Id. Vivienda | Situación Catálogo | Fecha Incorporación Catálogo | Fecha Inicio Situación | Fecha Fin Situación |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ARABA | ALEGRÍA-DULANTZI | EB1-1110/96-LE-000 | 1 | 72806 | OFERTADA | 21/08/2013 | 27/01/2014 | |
| ARABA | ALEGRÍA-DULANTZI | EB1-1450/03-LE-000 | 1 | 75394 | OCUPADA | 04/11/2013 | 04/11/2013 | |
| ARABA | ALEGRÍA-DULANTZI | EB1-1450/03-LE-000 | 2 | 75395 | OCUPADA | 04/11/2013 | 04/11/2013 | |
| ARABA | ALEGRÍA-DULANTZI | EB1-1450/03-LE-000 | 3 | 75396 | OCUPADA | 04/11/2013 | 04/11/2013 | |
| ARABA | ALEGRÍA-DULANTZI | EB1-1450/03-LE-000 | 5 | 75398 | OCUPADA | 04/11/2013 | 04/11/2013 | |
| ARABA | ALEGRÍA-DULANTZI | EB1-1450/03-LE-000 | 6 | 75399 | OCUPADA | 04/11/2013 | 04/11/2013 | |
| ARABA | ALEGRÍA-DULANTZI | EB1-1450/03-LE-000 | 7 | 75400 | OCUPADA | 04/11/2013 | 04/11/2013 | |
| ARABA | ALEGRÍA-DULANTZI | EB1-1450/03-LE-000 | 8 | 75401 | OCUPADA | 04/11/2013 | 04/11/2013 | |
| ARABA | ALEGRÍA-DULANTZI | EB1-1450/03-LE-000 | 9 | 75402 | OCUPADA | 04/11/2013 | 04/11/2013 | |
| ARABA | ALEGRÍA-DULANTZI | EB1-1450/03-LE-000 | 10 | 75403 | DISPONIBLE | 28/01/2014 | 28/01/2014 | |



Abisu-mezu bat agertuko da, eragiketa baieztatzeko eskatuz.




*Onartu* aukeratutakoan, etxebizitza desagertu egingo da zerrendatik.




## 6.2.3.4. Informazioa Excel-era esportatu

Leiho honetatik, ikusten ari garen informazioa Excel-era esporta dezakegu. Horretarako, ***Esportatu*** botoian klik egin behar da.




Excel orrian aukeratutako etxebizitza guztiak, haien ezaugarriak eta egoera agertzen dira:



# 7. Etxebizitzen erreserba

Sistema honetatik kudeatutako alderdi garrantzitsuenetako bat Etxebizitzen Erreserba da. Hori, funtsean, honako prozesu hauetan gertatzen da:

- Etxebizitzak sustapen batetik kanpo geratzea zozketa bidezko esleipen-prozesuan, udalak eta abarrek hala eskatuta.
- Etxebizitza eskatzea herritarren behar bereziko kasuetan (ostatu ematea, etxegabetzea...).
- Eusko Jaurlaritzaren jabetzako etxebizitza sozial berriak (“EE” motako espedientea).

Etxebizitzen erreserba bi modutara egin daiteke:

- Etxebizitza batzuk <u>hasiera-agindu</u> baten bidez erreserbatzen dira (esleipen-prozesutik kanpo geratzea). Erreserba mota horiek honako hauek egin ditzakete:
  - Sailak, norbaiti ostatu emateko, hirigintzako desjabetze-jarduketen kasuan.
  - Administrazioak edo sozietate publikoek, beraientzat erreserbatzeko.
- Horrez gain, Bizigunek edo Alokabidek <u>zuzeneko esleipenak</u> egin ditzakete.

Erreserba-prozesuak bi etapa ditu:

1) Etxebizitzen **eskaera**, paper-formatuan iristen da.
2) **Erreserba-akordioa**; eskatutakoarekin bat datozen etxebizitzak eta horiek erregistratzeko modu egokia aurkitu ondoren sortzen da. Dokumentu hori Zerbitzuko zuzendariak sinatu behar du.

Beraz, erreserba-prozesua eskaera batekin hasten da eta erreserba-akordioa formalizatzean amaitzen da; jarraian, etxebizitza okupatzen da. Akordiorako etxebizitzaren aukeraketa errazago egiteko, eskaintza bat egin daiteke, baina ez da nahitaezkoa.

Atal honetan etxebizitzen erreserba kudeatzeko aplikazioaren osagai desberdinak nola erabili azalduko dugu. Dagoeneko hitz egin dugu katalogoaren kudeaketari buruz, eskainiko eta/edo erreserbatuko diren etxebizitzen iturri gisa. Gainerako ekintzak honako hauek dira:

- Erreserba-eskaera kudeatzea.
- Eskaintza bat sortzea eta horren jarraipena egitea. Pauso hau aukerakoa da, baina erreserba-akordioa baino lehen egin daiteke.
- Erreserba-akordioaren kudeaketa.

Ordena horretan azalduko ditugu sistemak dituen funtzionalitateak.

## 7.1. Nola kudeatu etxebizitzak erreserbatzeko eskaera bat

Etxebizitza-eskaera bat jaso ondoren eta eskaintzarik izapidetu den edo ez kontuan izan gabe, erabilgarri dauden etxebizitza egokien katalogoa zehaztu behar dugu, eskatutakoari erantzuteko eta erreserba-akordio bat egiteko. Akordioa sortzen dugunean, erreserba-prozesua osatuta egongo da. Akordioan sartzen diren etxebizitzak katalogoan sartuta geratuko dira, “erreserbatuta”, okupatuak izan arte.

Etxebizitza erreserbatzeko eskaera elektronikoki kudeatu ahal izango da, egoitza elektronikoaren bidez. Dagokion formularioa jaso ondoren, informazioa BPEEren sistematik tratatu beharko da.

Hala, etxebizitza baten erreserbari hasiera emateko, lehenengo eskaera erregistratu beharko dugu; horretarako, hiru pauso hauei jarraituko diegu:

1. Jasotako erreserba-eskaera erregistratzea.
2. Etxebizitzen katalogoan aurkitzea, eskatutako ezaugarriekin.
3. Erreserba-akordioa sortzea.

Jasotako eskaera-dokumentuak eskatzen diren etxebizitzen ezaugarriak barne hartuko ditu, zehaztuta. Datuei alta emango zaie aplikazioan eta, horrez gain, eskaneatutako dokumentua erantsiko zaie.

Eskaera baten informazioa edozein unetan aldatu ahal izango da, baita akordioa egiteko prozesuan bagaude ere. Dena den, eskaera bat edo etxebizitzetako bat kendu ahal izateko, lehenengo dagokion akordioa edo erreserbatutako etxebizitza kendu beharko da bertatik, kasu bakoitzaren arabera.

Eskaerak izapide-bezeroaren bidez iristen dira aplikaziora; ondoren, langile teknikoek begiratzen dituzte eta, une horretatik aurrera, editatu egin daitezke:




"Editatu" sakatzean, honako pantaila hau agertuko da:




Hasteko, eskaeraren datu orokorrak agertuko dira, eta ondoren, etxebizitzei buruzko informazioa barne hartzen duten bi frame:

Eskatutako etxebizitzak:




Atal honetan erreserba-eskaeran eskatutako etxebizitza edo etxebizitzak agertzen dira.

Erreserbatutako etxebizitzak:




“Gehitu” aukera erabiliz, erabiltzaileak eskatu den etxebizitza sartu ahal izango du, ondoren erreserba-akordioa sortzeko:




Eskatutako etxebizitzaren eskakizunak oinarritzat hartuta, bateragarria den etxebizitza bat bilatuko da etxebizitzen katalogoan, eta erreserba formalizatuko da, pantailan agertzen diren datuak emanda. botoia erabiliz, etxebizitza hori aurkitu ahal izango da katalogoan, eskaintzen diren iragazpen-irizpideak erabiliz:



Azaltzen den etxebizitza eskaerarekin bat badator, hori hautatu eta "aukeratu" sakatuko dugu; hala, sartuta geratuko da, erreserbatutako etxebizitza gisa.

Hurrengo pausoa erreserba-akordioa sortzea izango da.

### 7.1.1. Akordio-dokumentua eskuratzea eta kontsultatzea

Geroago akordio-dokumentua eskuratzeko eta kontsultatzeko, badago erreserbaren ediziotik erabil dezakegun funtzionalitate bat:




Akordio-dokumentua eskuratzeko "Dokumentu-akordioa sortu" aukera erabiliko dugu. Aukeratutako erreserba-eskaerari lotutako akordio-dokumentu bat badago, sistemak honako mezu hau erakutsiko digu:




"Onartu" sakatzen badugu, honako pantaila hau agertuko da:




“Gorde” sakatzen badugu, akordio-dokumentu berri bat sortuko da; hori sisteman gordeta eta lanean ari garen erreserba-espedienteari lotuta geratuko da.

Dokumentu hori “akordio-dokumentua” aukeratik kontsultatu ahal izango da:



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA — DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES

**ETXEBIZITZAK GORDETZEKO EBAZPENA** / RESOLUCIÓN DE RESERVA DE VIVIENDAS **ZK.** / Nº 31

**Eskaera zk.** / Nº Solicitud EXP_VIV_PRUEBA

| **Erakunde eskatzailea** / Entidad solicitante | | **Erakunde hartzailea** / Entidad receptora | |
|---|---|---|---|
| **Erakundea** / Entidad | Ayuntamiento Santurtzi | **Erakundea** / Entidad | sdfsdgsdg |
| **Atala** / Departamento | Obra Social | **Atala** / Departamento | sdgsdgsdgsdg |

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Etxebizitzak guztira** / Total viviendas | 2 | **Gutxi gorabeherako prezioa guztira** / Total precio aproximado | 844,08 |

**Etxebizitzen ezaugarriak** / Características de las viviendas

| **Sustapena** Promoción | **Udalerria** Municipio | **Etxebizitza zkia.** Vivienda nº. | **Egokit.** Adapt. | **Logela kop.** Nº habitac. | **M2** | **Garaje** Garaje | **Trastel.** Trastero | **Edukintza erregimena** Régimen de Tenencia | **Erabilirako erregimena** Régimen de Acceso | **Prezioa** Precio | **Oharrak** Observaciones |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| BI-345-CD/67-050 | Bilbao | 84066 | Ez / No | | 93,39 | | | JABETZA OSOA / PROPIEDAD PLENA | SALMENTA / VENTA | 586,45 | Cuando el consorcio de seguros le compense por el terremoto, se irá |
| BI-345-CD/67-060 | Bilbao | 84088 | Ez / No | | 89,13 | | | JABETZA OSOA / PROPIEDAD PLENA | SALMENTA / VENTA | 257,63 | |

**Vitoria-Gasteiz, January 29, 2016n**

En Vitoria-Gasteiz, a 29 de enero de 2016

**Izpta.**/Fdo.: ~~MIREN SARATXAGA DE~~ LA ISLA

null
null
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES

ETXEBIDE

Donostia-San Sebastian, 1, 1 - 01010 - Vitoria-Gasteiz

## 7.1.2. Erreserba-eskaeren datuak esportatzea

Sistemak Exportar ▾ aukera barne hartzen du. Horri esker, Excel batera esporta daitezke erreserba-eskaeren datuak, txosten pertsonalizatuak egiteko edo informazioari beste edozein tratamendu emateko:

| Nº Expediente | Fec. Solicitud | Nº Viviendas | Entidad | Departamento | Dirección | Interlocutor | Estado |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2222222222 | 2015-11-18 00:00:00.0 | 2 | GV | EJIE | Calle Gran Via Diego Lopez de Haro 82 | DES_INTERLOCUT | SOLICITUD CREADA |
| | 2015-12-23 15:30:15.0 | 2 | GV | EJIE | Mi casa | CIUDADANO APE1 APE2 | SOLICITUD CREADA |
| | 2015-12-22 10:14:54.0 | 2 | GV | EJIE | Mi casa | CIUDADANO APE1 APE2 | SOLICITUD CREADA |
| | 2015-12-21 17:09:46.0 | 0 | Ayuntamiento Barakaldo | Vivienda | Dirección de prueba | CIUDADANO APELIIDOUNO APELLIDODOS | SOLICITUD CREADA |
| EXP_PRUEBA_MDB_COMPLETA_1 | 2015-12-23 15:55:45.0 | 3 | IBER | VIV | Zamudio | PRUEBA APE1 APE2 | SOLICITUD NOTIFICADA |
| EXP_PRUEBA_MDB | 2015-11-16 00:00:00.0 | 2 | DESC_ENTIDAD | DES_DPTO | DES_DIRECC | DES_INTERLOCUT | SOLICITUD NOTIFICADA |
| EXP_2016_PRUEBA_MDB_1 | 2016-01-07 09:15:31.0 | 1 | Ayuntamiento Barakaldo | Accion Social | Ayuntamiento, planta 3 | USUARIO PRUEBA PRUEBA | SOLICITUD NOTIFICADA |

# 8. Etxebizitzen eskaintzak [aukerako izapidea]

Etxebizitza-eskaera Etxelaguntzan erregistratu ondoren, modulu hau erabil dezakegu eskatutako etxebizitzen ezaugarriekin bat datozen etxebizitzak katalogoan aurkitzeko eta eskaintza bat formalizatzeko.

Eskaintza egin ondoren, erantzun baten zain geratuko gara. Erantzuna bada eskainitako etxebizitza onartzen dela, hurrengo pausoa erreserba-akordioa formalizatzea izango da. Baliteke, halaber, eskaintza baztertua izatea eta, dagokion itxarote-aldia igaro ondoren erantzunik jaso ez dugunez, amaitutzat eman nahi izatea.

Eskaintza aukerako izapidea da. Ez da nahitaezkoa eta zuzenean erreserba-akordioa sor daiteke (eskaerari egokitzen zaizkion etxebizitzak aurkitzeko), baina komenigarria da eginiko eskaintza jasota geratzeko eta horren jarraipena egiteko; modu horretan, kontrolatu ahal izango dugu, epe jakin batean erantzuna jasotzen badugu.

## 8.1. Eskaintza berri bat sortzea

Eskaintzak modulura sartzeko, “Eskaintzak” aukera sakatuko dugu hasierako menuan. Orduan, eskaintzak mantentzeko leiho bat irekiko da; bertan, eskaintza berriei alta eman eta lehendik daudenak kontsultatzeko aukera ere badago.




Eskaintza berri bat bi fasetan sortzen da:

1. Eskaintza sortzen da (goiburua), hartzailearen informazioarekin.
2. Eskaintzari dagokion etxebizitzaren edo etxebizitzen informazioa gehitzen zaio.

Fase bakoitzean emandako informazioa orrialdearen erdi batean agertuko da.



gisa markatutako zatian, egindako eskaintza guztiak agertuko dira, horiei dagozkien esleipendunen informazioarekin; gisa markatutako beheko zatian, berriz, eskaintzaren osaera agertuko da, alegia, zatian aukeratuta eskaintzak barne hartzen dituen etxebizitzen zerrenda.

Jarraian, fase bakoitzeko informazioa nola sartu azalduko dugu, zehatz-mehatz.

### 8.1.1. Eskaintza sortzea

Hasteko, eskaintza bera sortu behar da. Horretarako, eskaintzak mantentzeko leihoan dagoen "Gehitu" botoia erabiliko dugu.




Irekitzen den leihoan eskaintzaren hasierako informazioa sartu behar dugu.




Hasiera batean, egoera ("Zain"), eskaintzaren data eta esleipenduna bakarrik jakinarazi behar ditugu. Eskaintzaren egoeran "zain" gisa agertzen da lehenetsita, eta eskaintzaren datan une horretakoa agertuko da. Gainerako datak ez dira sartuko hasiera batean; geroago erabiliko dira, eskaintzen jarraipena egiteko.

Beraz, etxebizitza eskatu zuen esleipendunaren datuak bakarrik sartu behar ditugu.

Esleipenduna bi modutara bila daiteke:

**1)** Esleipendunaren NANa eta izena eremuen ezkerraldeko sinboloak esan nahi du prediktiboak direla, hau da, NANa edo izena tekleatzen hastean (lehenengo 4 karaktereak sartutakoak) karaktere horiek dituzten esleipendun guztien zerrenda agertuko dela:

*NAN bidezko bilaketa:*


Detalle de la oferta
* Campos obligatorios
Composición de la Oferta
Id. Oferta
* Situación
PENDIENTE
* Fecha Oferta
13/03/2014
Fecha Finalización
Fecha Declinación
Fecha Aceptación
Datos Adjudicatario
DNI/NIF *
4566
Nombre
45667181Z NOMBRE_253312 PRUEBA APELLIDO2_253312
45668127V NOMBRE_306289 APELLIDO1_306289 APELLIDO2_306289
16456631Q NOMBRE_353302 APELLIDO1_353302 APELLIDO2_353302
16456618A NOMBRE_353298 APELLIDO1_353298 APELLIDO2_353298
24245669N NOMBRE_385338 APELLIDO1_385338 APELLIDO2_385338

*Izen bidezko bilaketa:*




**2)** Horren ordez, bilaketa aurreratua egin dezakegu, "*Esleipendunaren datuak*" eremuaren eskuinean dagoen luparen ikonoari sakatuz:




Leiho hau agertuko da, eta irizpide jakin batzuen arabera bila dezakegu esleipenduna bertan:



Hemen, aukeratutako bilaketa-irizpideen balioak osatu behar ditugu.




Adibidez, bilaketa-terminoak sartu ondoren (1 eta 2), *Bilatu* sakatuko dugu (3). Irizpideekin bat datozen esleipendunen informazioa leihoaren beheko aldean agertuko da (4).

Amaitzeko, beheko aldean agertzen den esleipendunen zerrendan, klik egingo dugu aukeratu nahi dugunaren gainean eta, jarraian, ***Aukeratu*** botoia sakatuko dugu (5). Hala, aurreko leihora itzuliko gara, aukeratutako esleipenduna erakusten duenera.

Datu guztiak bete ondoren, ***Gorde*** sakatuko dugu. Aurreko leihora itzuliko gara eta orrialdearen goiko aldean eskaintza berriaren datuak agertuko dira. “Eskaintzaren id.” identifikatzailea esleituta izango du automatikoki, eta etorkizunean eskaintza erraz aurkitzeko balio izango digu.




Alabaina, hori eskaintzaren goiburua besterik ez da. Orain, eskaintza osatu behar dugu, eskainitako etxebizitzaren edo etxebizitzen informazioa sartuz.

### 8.1.2. Eskaintzaren osaera sartzea (eskainitako etxebizitzak gehitzea)

Eskaintza sortu ondoren, hori osatzen duena sartu behar dugu; alegia, eskainitako gisa agertzen den etxebizitza edo etxebizitzak lotu behar zaizkio.

Gogorarazi behar dugu eskaintzarako aukeratu beharreko etxebizitzen ezaugarriak aurrez eginiko eskaera batean zehaztu ditugula. Logikoena da eskaintza bat egitea eskatutako etxebizitza bakoitzerako.

Klik egingo dugu zerrendan sortu berri dugun eskaintzan, hori aukeratzeko; hala, jarraian gehitzen ditugun etxebizitzak eskaintza horri lotuta geratuko dira.




Eskaintzari etxebizitzak gehitzeko, “Eskaintzari etxebizitzak gehitu” botoia erabiliko dugu, atalean. Leiho berri bat irekiko da eta, horri esker, gure eskaintzarekin bat datozen etxebizitzak aurkitu ahal izango ditugu katalogoan.




Hemen, iragazte-irizpide batzuk ezarri ahal izango ditugu, gure eskakizunetara egokitzen diren etxebizitzak errazago aurkitzeko (eskakizunak aurrez eginiko eskaera batean zehazten dira).

Espediente-zenbakiak “*” onartzen du, zernahitarako karaktere gisa. Azalera erabilgarriaren balioek zenbaki osoak izan behar dute. Irizpideak ezarri ondoren, **Bilatu** botoia sakatuko dugu horiek aplikatzeko. Orrialdearen beheko aldean edozein egoeratan dauden katalogoko etxebizitzak agertuko dira, dagoeneko eskaintza honen zati direnak izan ezik (halakorik balego). Dena den, ezin izango zaio etxebizitza hauetako edozein gehitu eskaintzari; katalogoan erabilgarri daudenak besterik ez.

Erabilgarri ez dauden etxebizitzak agertzea (erreserbatutakoak, okupatutakoak, etab.) baliagarria da; izan ere, une horretan ez badago gure irizpideetara egokitzen den etxebizitza erabilgarririk, laster erabilgarri gera daitezkeen etxebizitzak ikus ditzakegu (esaterako, indarreko erreserbaren amaiera-data gertu dagoenean).

Zer etxebizitza eskaini nahi dugun (bat edo gehiago) erabaki ondoren, hori aukeratuko dugu, lehen zutabeko egiaztapen-laukian klik eginez, lehen zutabean (1), eta, ondoren, **Gorde** botoian (2):




Mezu bat agertuko da, aukeraketa baieztatzeko eskatuz:




**Onartu** sakatu ondoren, aurreko leihora itzuliko gara; bertan, grabazioa egokia izan dela baieztatzen duen mezu bat agertuko da, eta etxebizitza (2) ataleko zerrendan agertzen dela ikusiko dugu.




Eskaintzan sartutako eskaintzak automatikoki “eskainita” egoeran agertuko dira katalogoan. Une horretan, eskaintza osatuta dago. Eskaintza erantzun bat jasotzeko “zain” geratuko da.

## 8.2. Eskaintzak mantentzea

### 8.2.1. Kontsulta

Lehendik dagoen eskaintza bati buruzko informazioa ikusteko, “Eskaintza” aukeratuko dugu hasierako menuan, eta mantentze-leihora joango gara.




Bertan, **Iragazi** botoia erabiliz, iragazki bat aplikatuko dugu nahi dugun eskaintzaren informazioa berreskuratzeko. Iragazkiaren funtzionamendua eskaintza sortzeko azaldutakoaren bera da. Praktikoena da “Eskaintzaren id.” erabiliz iragaztea, hori gogoratzen badugu.




Eskaintzen zerrendan, bat aukeratuko dugu, gainean klik eginda. Orrialdearen beheko aldean lehendik lotuta dituen etxebizitzak kargatuko dira. Hala, eskaintzaren informazioa bi ataletan banatuta ikusiko dugu:

❶ Eskaintzaren identifikazioa eta hartzailea.

❷ Eskaintzaren osaera (etxebizitzak).




Hortik aurrera, eskaintzaren informazioa aldatu ahal izango dugu:

- ❶ atalean, esleipendunaren informazioa aldatu ahal izango da, baita horren egoera eta egoera bakoitzari lotutako datak ere; hala, eskaintzaren jarraipena egin ahal izango dugu.
- ❷ atalean, eskaintzari etxebizitza berriak gehitu edo lotutako etxebizitzak kendu besterik ezin da egin.

Hurrengo ataletan zehatz-mehatz azalduko ditugu hemendik egin daitezkeen aukerak.

### 8.2.1. Eskaintza bat osatzen duten etxebizitzak kentzea

Eskaintza bati lotutako etxebizitzak kentzeko, 

botoia erabili behar da. Lehenago, eskaintzatik kendu nahi den etxebizitza aukeratuko dugu; horretarako, nahikoa da etxebizitzen zerrendan dagokion lerroan klik egitea (urdinez nabarmenduta geratuko da).




Mezu bat agertuko da, baieztatzeko eskatuz:




Banan-banan baino ezin dira kendu, baina, normalean, etxebizitza bakarra egongo da eskaintza bati lotuta, edo, gehienez ere, bi.

Eskaintza batetik kendutako etxebizitzak “erabilgarri” gisa agertuko dira automatikoki katalogoan.

Ezin dira “zain” dauden etxebizitzak kendu eskaintza batetik. Saiatzen bagara, abisu bat agertuko zaigu:



## 8.2.2. Eskaintzak kentzea

Eskaintzak kentzeko, 

botoia erabiliko dugu; aukeratutako eskaintza kendu egingo da. Eskaintzak etxebizitzak lotuta bazituen, lotura hori kenduta geratuko da aldez aurretik, eta etxebizitza horiek guztiak “erabilgarri” gisa agertuko dira automatikoki katalogoan.

Eskaintza bat kentzeko, hori aukeratu (kolore ilunagoarekin nabarmenduta agertzen da) eta ***Kendu*** botoian klik egin behar da:




Abisu-mezu bat agertuko da:




## 8.2.3. Eskaintza bat mantentzea (Jarraipena)

Eskaintza baten egoera aldatuz joango da aplikazioan zenbait ekintza egiten diren heinean; alabaina, erabiltzaileak berak ere alda dezake, zuzenean, eskaintzak mantentzeko leihotik.

Eskaintza baten informazioan egin daitezkeen aldaketa horren jarraipena egitea ahalbidetzen dutenak bakarrik dira, bere egoera aldatuz eta egoera berriari dagokion dataren berri emanez.




Eskaintza bat sortzean, “zain” egoeran erregistratuta geratzen da, erantzuna jasotzeko zain, eta lotuta dituen etxebizitzen egoera aldatu egiten da katalogoan, “eskainitako” gisa agertuz, erreserbatuak izateko zain.

Eskaintzak epe jakin batean erantzunik jasotzen ez badu, bertan behera utz dezakegu “amaitua” dagoela markatuz. Onartzen bada, eskaintza “onartu” gisa markatu behar da, eta baztertu egiten bada, “baztertu” gisa.

Eskaintza baten egoera ere automatikoki aldatuko da aplikazioaren bitartez ekintza jakin batzuk gauzatzean. Adibidez, eskaintza onartu ondoren, logikoena da erreserba berri bat formalizatzea. Erreserbaren formalizazioak eskaintzaren egoera aldatzea ekarriko du, amaitu gisa markatuz, automatikoki.

Egoera berariaz aldatzeko, klik egin behar da **Editatu** botoian eta, irekitzen den leihoan, egoera berria aukeratu eta horri dagokion data jakinarazi:




Alabaina, inkongruentziak saihesteko, ezin izango da beste egoeraren bat aukeratu, bere egungo egoeraren arabera:

- Eskaintza erantzunaren zain badago, egoera aldatu ahal izango dugu, honako egoera hauetara: onartua, baztertua edo amaitua.
- Eskaintza onartuta badago, egoera amaitura bakarrik aldatu ahal izango dugu.
- Eskaintza baztertuta edo amaituta badago, egoera ezin izango dugu aldatu.

Informazio berria sartu ondoren, **Gorde** botoia erabili behar da, grabatuta gera dadin.

Informazioa grabatzean, aukeratutako egoerarekin bat datozen datak sartu direla egiaztatzen da:

- Data bat ematen badugu eskaintzaren egoera eguneratu gabe, akatsa agertuko zaigu. Hala, data bat ematen badugu, esaterako onartze-data, eta eskaintzaren egoera eguneratu ez badugu, mezu hau agertuko zaigu: “Amaiera-, baztertze- eta/edo onartze-data eman duzu, eta ez duzu eskaintzaren egoera eguneratu” .
- Gauza bera gertatzen da egoera aldatzen bada eta dagokion dataren berri ematen ez badugu; mezu hau jasoko dugu: “Eskaintza amaituta badago, amaiera-dataren berri eman behar duzu”. Mezu hori sortzen da aukeratzen dugun egoera ez datorrenean bat emandako datarekin; ondorioz, egoerari dagokion data emateko eskatzen zaigu, eta ez beste egoeraren bati dagokion beste datarik.

Eskaintzaren egoera aldatzean, hori osatzen duten etxebizitzen egoera aldatzen da katalogoan ere:

- “Zain” zegoen eskaintza bati alta ematen zaionean, katalogoan “eskainita” bezala agertzen dira.
- Eskaintza “onartu” gisa jartzen bada, katalogoan “eskainita” bezala jarraitzen dute etxebizitzek.
- Eskaintza “baztertuta” edo “amaituta” agertzen bada, katalogoan etxebizitzak “erabilgarri” jartzen dira berriz ere.

### 8.2.4. Excel txostenak

Eskaintzak mantentzeko leiho honetatik, ikusten ari garen informazioa Excel-era esporta dezakegu. Horretarako, klik egin behar da Exportar botoian.

Excel orrian agertzen dira eskaintza identifikatzen duen informazioa eta hori osatzen duten etxebizitza guztien zerrenda. Lerro bakoitza etxebizitza bati dagokio, eta lehenengo zutabeetan eskaintza identifikatzen duen informazioa agertzen da:

| | A | B | C | D | E | F | G | H | I | J | K | L | M |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Id. Oferta | Adjudicatario | Situación Oferta | Fecha Oferta | Fe | Fec | Fecha Aceptación | Provincia | Municipio | Expediente | Num. Vivienda | Id. Vivienda | Situación Cata |
| 2 | 62 | 16123408V- | ACEPTADA | 09/10/2013 | | | 10/10/2013 | ARABA | VITORIA-GASTEIZ | EB1-0808/10-EE-000 | 10 | 116905 | OFERTADA |
| 3 | 62 | 16123408V- | ACEPTADA | 09/10/2013 | | | 10/10/2013 | ARABA | VITORIA-GASTEIZ | EB1-0808/10-EE-000 | 9 | 116904 | OFERTADA |
| 4 | 62 | 16123408V- | ACEPTADA | 09/10/2013 | | | 10/10/2013 | ARABA | VITORIA-GASTEIZ | EB1-0808/10-EE-000 | 11 | 116906 | OFERTADA |
| 5 | | | | | | | | | | | | | |